



ASTIGARRAGAN, TX0TX!

Olatz Arrieta kazetariak eman dio hasiera denboraldiari “gure sagardo berria!” esan ondoren

“Gure sagardo berria!” ohiko esaldiaren adierazpenarekin hasiera eman zion joan den asteazkenean Olatz Arrieta kazetariak aurtengo txotx denboraldiari Astigarragako Gartziategi sagardotegian.

Sagardo Berriaren Egunaren XXVI. ekitaldia eguerdiko 12.00etan hasi zen Sagardoetxean. Bertan, Zorione Etxezarraga Astigarragako alkate eta Sagardun Partzuergoko lehendakariak uzta berria aurkeztu eta sagarra-
ren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri eman zuen, sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuekin batera. Ekitaldian Eusko Jaur-

laritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere bildu ziren.

Ondoren, Sagardoetxeko sagastian sagarrondo berri bat landatu zuen irekiera ekitaldiko protagonistak, Arrietak alegia. Urtero egiten den ekitaldi sinboliko honekin naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu.

Gero, txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatu zuten Gartziategi sagardotegian eta ondoren, sagardogileek Olatz Arrieta soka dantzaren parte hartzera gonbidatu zuten, lehen kupela irekitzeko.

**Hirugarren urtez, doako
autobus zerbitzua
izango da herritik
sagardotegietara**

Olatz Arrieta nazioarteko kazetaria da eta duela gutxi EuroBasque 2017 Kazetaritza saria jaso du *Europa*, lehen ehun egunen ezinegona artikuluatik.

Andoni Egaña (1994), Juan Mari Arzak (1999), Mikel eta Xabi Alonso (2004), Jose Luis Korta (2006), Andoni Luis Aduriz (2008), Realak (2010), La Oreja de Van Gogh (2013), Aritz Aranburu (2016) eta Alberto Iñurragi (2018) izan dira, besteak beste, Sagardo Berriaren Egunko beste protagonista batzuk.

Doako autobus zerbitzua

2019ko txotx boladan, eta hirugarren

urtez, Astigarragako sagardotegietara joateko autobus zerbitzua izango da. Donostia ibilbideko autobus (Astigarragako Udalak di eta Astigarragako sagardotegitik), Irteerak 20.30etik izango dira, astelehenean eta larunbatetan eguerdian go da zerbitzua 13.30tik aurrera egiteko autobusak, berriz, 00.00etara izango diren autobusak ostegunera; ostiral eta larunbatetan, berriz, 22.30tik 00.30etara eguerdikoa zerbitzua izango da itzultzeko, 16.30tik aurrera bitartean). ■ N.G.



www.oiharte.com

Irukarate -gain auzoa
ZERAIN (Gizpuzkoa)

Tlf: 686 299 158 • 943 501 013



ISASTEGI

~ SAGAR DOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64